

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

100/2018 Foru Agindua, martxoaren 13koa, onesten duena irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez ezinduentzako kirola garatzeko 2018rako dirulaguntza deialdia

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak dirulaguntzak emango ditu Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko Konderriko irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez 2018an ezinduentzako kirola garatzeko.

Horretarako, ezinduentzako kirol jarduerak bete beharrekoak zehaztuko dira, sailak dirulaguntza egokiak bidera ditzan.

Azterturik Kirol Zerbitzuaren buruak emandako txostena.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2018rako dirulaguntza deialdia onestea Arabako Lurralde Historikoko edo Trebiñuko Konderriko irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez ezinduentzako kirola garatzeko. Deialdia, gehienez, berrogeita bost mila euroz (45.000,00 euro) egongo da hornituta, eta ondoko hauek arautuko dute: Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretua (ALHAOren 123. zenbakian, 2015eko urriaren 21ekoan, argitaratuta), onetsi zituena Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzei aplikatuko zaizkien oinarri-arau orokorrak, eta foru agindu honen eranskinean jasotzen diren berariazko oinarriak.

Bigarrena. Gastu hau Arabako Foru Aldundiaren 2018ko ekitaldirako gastu aurrekontuaren partida honen kontura egingo da: "70106.7700.4810004 Ezinduen elkarteentzako laguntza" (Ierroa: 70-115, xedapen erreferentzia: 105.908).

Hirugarrena. Kirol Zerbitzuaren proposamena azertu ondoren emango du organo eskudunak bidezko den ebazpena; horretarako, lau hilabete izango ditu, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe hori igarota esanbidezko ebazpenik hartu ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela uler dezakete.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 13a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE

Eranskina

Irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez 2018ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean ezinduentzako kirola garatzeko dirulaguntza deialdia

Lehenengoa. Kontzeptua eta xedea

Deialdiaren xedea da lehiaketa bidez dirulaguntzak ematea; hain zuzen ere, 2018ko urtarrilaren 1a eta irailaren 30a bitartean, Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko Konderrian, ezinduentzako kirol jarduerak eta programak antolatzeak eta garatzeak eragingo dituen gastuak finantzatzen laguntzeko. Hori guztia, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, onetsi zituenak Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emango dituen dirulaguntzen oinarri-arau orokorrak, xedatutakoa kontuan hartuta egingo da.

Ezinduentzako kirol jarduera edo jarduera fisiko dira ezinduen edo antzeko ezaugarriak dituzten artean kirola sustatzea helburu duten jarduerak.

Dirulaguntza horiek ekarpenak dira, beste erakunde publiko zein pribatu batzuen ekarpenekin batera jarduera horiek egitea erraztu nahi dutenak.

Bigarrena. Aurrekontuei egozte

Ematen diren dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezin daiteke 45.000,00 euro baino handiagoa izan. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2018rako gastu aurrekontuko "Ezinduen elkarteentzako laguntza" izeneko 70106.7700.481.00.04 partidaren kontura ordainduko da.

Hirugarrena. Elkarte eta/edo erakunde onuradunak eta baztertuak

Erakunde hauek izan daitezke onuradunak:

- a) Kirol Egokituaren Arabako Federazioari atxikitako kirol klub eta elkarteak.
- b) Egoitza Araban duten irabazteko xederik gabeko erakundeak, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren elkartearen erregistro egokian izena emana badute.
- c) Salbuespenez, Trebiñuko Konderrian egoitza izanik beren autonomia erkidegoko elkarte erregistroan arauz erregistratutako erakundeak.

Ez dira onuradun izango, ez Diputatuen Kontseiluaren urriaren 6ko 55/2015 Foru Dekretuak, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, hirugarren oinarrian jasotako baztertze egoeretan dauden erakundeak, ez Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan, araututako egoeraren batean daudenak.

Espresuki deialdi honetatik kanpo gelditzen dira Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren 2018rako aurrekontuan partida izenduna duten erakundeen jarduerak.

Deialditik kanpo gelditzen dira Arabako Lurralde Historikoan irabazteko xederik gabeko erakundeen bitartez 2017-2018 kanpainen eskola kirola garatzeko dirulaguntzetarako deialdian kirolari ezinduentzako laguntza emateko prestakuntza langileak dituzten erakundeak.

Deialdi honetan onuradun diren erakundeek ezin izango dute parte hartu irabazteko xederik gabeko erakundeek antolatutako jolas kirol jardueretarako dirulaguntza deialdian.

Laugarrena. Diruz lagundu daitekeen programa

Batez ere jarduera hauek diruz lagunduko dira: talde eta parte hartzaile berriak erakartzeko asmoa dutenak, kirol mota edo espezialitate berri bat ezartzeko asmoa dutenak, dauden kirol mota edo espezialitateak indartzeko edo horiek teknikoki hobetzeko asmoa dutenak, mantentze kirolak bultzatzen dituztenak eta lehiaketetan parte hartzeko antolatzen direnak.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

1. Eskaerak Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuari bidali behar zaizkio, l. eranskinean argitaratzen den ereduari jarraikiz.

2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

2.1. Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia.

2.2. Pertsona horrek erakunde eskatzailea ordezkatzuz diharduela egiaztatzen duen agiria.

2.3. Eskaera aurkeztu baino lehen erakundea identifikatzeko daturik aurkeztu ez bada, pertsona baimenduak sinatutako agiri bakar batean bildutako datu hauek aurkeztuko dira, erakundeari alta emateko edo kontabilitateko hirugarrenen fitxategian datuak eguneratzeko:

- Sozietatearen egungo helbidea, telefonoa, faxa eta/edo posta elektronikoa.
- Banku kontuaren zenbakia, IBAN kodearekin.
- Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia (IFZ).

2.4. Erakunde eskatzaileak soldatapeko langilerik baldin badu, egiaztatu egin beharko du bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egiaztagiriak aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga betebeharrei dagokienez, baldin eta sozietatearen egoitza Araban daukaten erakunde onuradunak badira, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

2.5. Urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 29.3 artikuluan ezarritakoa betez, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak sektore publikoko hirugarrenetik kontratuak xedatzen dituen araudiek kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gañditzen baditu, erakunde onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaileari, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez dagoen zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin den.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan jaso behar dira, edo, hala behar denean, dirulaguntzaren eskabidean; haien arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko onena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira memoria batean.

Eskaerak adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

3. Erakundeek eskaera bakarra egin ahalko dute, oinarri hauetako laugarrenean xedatutakoaren arabera.

4. Jarduera bererako erakunde sustatzaile edo antolatzaileak eta erakunde parte hartzaileak, biek, eskaera aurkezten badute, erakunde antolatzaileak egindakoa baino ez da kontuan hartuko.

Seigarrena. Aurkezteko epeak

Hogei egun natural izango dira eskaerak aurkezteko, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Zazpigarrena. Prozeduraren izapidetzea eta balorazio irizpideak:

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua da espedientea bideratzeko organo eskuduna.

Laguntzen zenbatekoa ezartzeko, eskaeran emandako datuak balioetsiko dira (eskaera orria), puntuazio baremoan jasotzen diren irizpide hauen arabera:

7.1. Gastu konputagarrien aurrekontua.

Atal honetan, puntuak kalkulatzeko orduan, konputatu beharreko gastuak dira ondoren adierazten diren kontzeptuengatik eta gehieneko ehunekoengatik diruz lagundutako jardueri egotzi dakizkiokeenak:

- a) Epailak.
- b) Hauexen gastuak: kirol monitoreak, laguntzaileak, ibilbidea zehaztearen ardura dutenak, bidegurutzeak zaintzen dituztenak eta jarduerak egiteko beharrezkoak diren gainerako langileak.
- c) Kanona, trafiko tasak, bai eta aplikagarri diren gainerako tasak ere. (abalak ez).
- d) Mediki, mediku azterketa, anbulantzia, salbamendu, albaitari, ferratzaile, irrati-lotura, dopin kontrol eta abarren gastuak, probarako beren-beregi kontratatutakoak.
- e) Jardueran parte hartzen dutenen joan-etorriak, garraio kolektiboan.
- f) Federazio lizentzien tasak, federazioan izena emateko kanona eta/edo tasak, bai eta lehiaketa federatuetan izena emateko kanona eta/edo tasak.
- g) Material suntsikorra eta erregaia alokatzea eta/edo erostea.
- h) Dirulaguntza xede diren jarduerak garatzeko berariazko kirol material, ekipo eta instalazioen alokairu gastuak.
- i) Dirulaguntza xede diren jarduerak garatzeko berariazko kirol material ez suntsikorra alokatu eta/edo eskuratzea.

Honako gastu hauek ez dira gastu konputagarriak izango, puntuazio baremoaren arabera laguntzaren kalkulua egiteko; aldiz, jardueraren guztirako gastuak zenbateko konputagarriak izango dira:

- a) Parte hartzaileen, epaileen, zuzendarien, eta abarren dietak, ostatu eta mantenu gastuak (otorduak, lunchak eta antzeko gainerakoak). Bai, ordea, probarako anoa.
- b) Jarduerarako aseguru orokorra eta/edo berariazkoa.
- c) Entrenamendu eta/edo lehiaketa ekipazioak, hala nola elastikoak, kulotak, izerditakoak, txandalak, bainujantziak, kimonoak eta antzeko materialak.
- d) Parte hartzaileen opariak (loreak, elastikoak, izerditakoak, dominak, oroigarriak eta antzeko beste material batzuk, bai eta fotolitoak eta haiek inprimatzea eta/edo grabatzea ere).
- e) Ordezkaritza, protokolo eta antzeko gastuak.
- f) Kirolariak kontratatzea (ordainsariak, dietak eta antzeko gastuak).
- g) Instalazioen mantentze lanak egiteko dietak edo ordainsariak.
- h) Materiala garraiatzea eta muntatzea.
- i) Jarduera burutuko den instalazioetan beharrezko diren prestatze lanak edo egokitze lanak sortutako gastuak.
- j) Megafonia alokatzea eta lokuzioa.
- k) Garaikurrak.

l) Kartelak (diseinatzea, inprimatzea, banatzea, fotolitoak eta gainerako inprimatze prozedurak) eta publizitatea komunikabideetan.

m) Parte hartzaileei dirutan edo gauzatan emandako sariak eta haien antzekoak.

n) Ikuztegi gastuak.

o) Antolaketako, zuzendaritza teknikoko eta zuzendarien joan-etorrietarako gastuak.

p) Bulegoko materiala, fotokopiak, informatikako materiala, posta, telefona, web orria sortzea eta zaintzea...

q) Kultura edo animazio jarduerak.

r) Instalazioak eta/edo materiala zaintzeko eta kontrolatzeko gastuak.

Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, inolaz ere ezin dira sartu dirulaguntzaren xede diren gastuetan.

Puntuak honako puntuazio baremo honen arabera banatuko dira:

GASTU KONPUTAGARRIEN AURREKONTUA	PUNTUAK
0,01 eta 1.000,00 euro bitartean	1
1.000,01 eta 2.000,00 euro bitartean	2
2.000,01 eta 3.000,00 euro bitartean	3
3.000,01 eta 4.000,00 euro bitartean	4
4.000,01 eta 5.000,00 euro bitartean	5
5.000,01 eta 6.000,00 euro bitartean	6
6.000,01 eta 7.000,00 euro bitartean	7
7.000,01 eta 8.000,00 euro bitartean	8
8.000,01 eta 9.000,00 euro bitartean	9
9.000,01 eta 10.000,00 euro bitartean	10
10.000,01 eta 11.000,00 euro bitartean	11
11.000,01 eta 12.000,00 euro bitartean	12
12.000,01 eta 13.000,00 euro bitartean	13
13.000,01 eta 14.000,00 euro bitartean	14
14.000,01 eta 15.000,00 euro bitartean	15
15.000,01 eta 16.000,00 euro bitartean	20
16.000,01 eta 17.000,00 euro bitartean	21
17.000,01 eta 18.000,00 euro bitartean	22
18.000,01 eta 19.000,00 euro bitartean	23
19.000,01 eta 20.000,00 euro bitartean	24
20.000,01 euro baino gehiago	25

7.2. Dirulaguntzak banatzeko puntuazioen sistema erabiliko da. Horretarako, bigarren oinarrian zehaztutako zenbatekoa zatitu egingo da puntuazio baremoa aplikatuz eskatzaile guztiek lortutako puntu guztien artean, eta horrek emango digu puntuaren balioa. Laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, puntuaren balioa eta eskabide bakoitzaren puntu kopurua biderkatu behar dira, betiere zenbateko hori eta gainerako sarrerak gehitzearen emaitzak jardueraren gastua gainditu gabe.

Honako muga hauek ezarriko dira:

- Gastu konputagarrien muga.
- Jardueraren guztirako gastuak ken jardueraren guztirako diru sarrerak, horren emaitzaren muga.
- Eskatzaileak "eskatutako zenbatekoa" laukitxoan adierazitako muga ezarriko da.
- Edonola ere, 12.000,00 euroko muga orokorra.

Diruz lagundutako jarduerak onuradunek azpikontratatzea, zeina urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 27. artikuluan jasotzen baita, ez da espresuki onartzen oinarri hauetan jasotzen diren laguntzetarako.

2018ari buruz emandako datuen arabera aplikatuko dira dirulaguntzak, eta ezin daitezke inoiz ere argudio izan beste urte batzuetan eskatu ahal izateko.

Ez dira baloratuko egiaztatzen ez diren datuak.

Zortzigarrena. Ebazpena

1. Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Balorazio batzorde horren lehendakaria Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren burua izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuz, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

2. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

3. Kirol Zerbitzuak proposatuta, organo eskudunak bidezko ebazpena emango du deialdia ALHAOn argitaratzen denetik lau hilabete igaro baino lehen. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu behar dute.

4. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla.

5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoarekin.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

7. Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera. Horretarako, bi hilabete izango dira, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatuta.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorri urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin.

Bederatzigarrena. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

1. Gastuak zuzen zerrendatu eta justifikatutakoan ordainduko da dirulaguntza.

2. Erakunde onuradunek ondoko hauek aurkeztu beharko dituzte 2018ko urriaren 31ra arteko epean:

a) Memoria-likidazioaren inprimaki normalizatua (II. eranskina) behar bezala beteta, eta gastuen jatorrizko egiaztagiria (gastuen zenbateko osoaren jatorrizko ordainagiri edo fakturak). Aitzitik, 500,00. euro baino gehiagoko fakturak aurkeztuz gero, ordaindu egin direla egiaztatu beharko da.

Beharrezkoa da aurkeztea jatorrizko formatuan; hortaz, ez dira halakotzat joko fax bidez, datozenak, eskaneatuta daudenak, posta elektronikoki bidez bidaltzen direnak, ezta antzekoak ere.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Igorlea, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailera, haren izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Data.

Orobat, ez dira onartuko justifikazio gastu gisa zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiria, PFEZeko (pertsone fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokienez.

Jasandako BEZeko kuotak diruz laguntzeko moduko gastu moduan konputatzeari begira, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren ebazpena edo zerga egoitza daukaten lurraldeko zerga administrazioarena aurkeztu beharko dute, zeinean BEZaren Foru Arauaren 20.hiru artikuluan aurreikusten den entitatearen izaera soziala aitortzen zaion, arau horren 20.bat artikuluko 13. idatz zatietan jasotzen den zergaren salbuespena aplikatzeari begira.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztuko da, eta/edo bankuaren zigilua daukala.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria, non agertuko diren faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketaren data.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

– Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.

– Posta elektronikoki jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.

– Jatorrizko erosketa txartelak, zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen dutenak (merkataritza guneetakoak, autobideetakoak, bidaia txartelak eta abar) edo jatorrizko fakturak, enpresa jaulkitzaileak jarritako zigiluarekin, ordainduta daudela adieraziz.

Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2018rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabaliao atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

Jarduera egin eta gero, aurkeztutako datuetan edozein aldaketa eginez gero, horrek eskabidean adierazi ziren eta dirulaguntza kalkulatzeko oinarri moduan erabili ziren datuetan aldaketarik sortzen bada, hura berriro kalkulatu beharko da, Deialdiaren zazpigarren oinarrian jasotzen diren irizpideen arabera, eta ezin izango da, inola ere, hasieran bideratutakoa baino handiagoa izan.


Hamargarrena. Bateriaezintasunak

Dirulaguntzak emateko oinarri-arau orokorretan ezarritakoa gorabehera, deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak izan daitezke Arabako Foru Aldundiko beste sailetatik edo horiei atxikitako erakundeetatik jaso daitezkeen dirulaguntzekin.

Hamaikagarrena. Publizitatea

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

2. Era berean, Arabako Foru Aldundiaren web orrian www.araba.eus egongo da ikusgai, Herritarrentzako zerbitzuak / Laguntzak eta dirulaguntzak izeneko atalean.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	Eskabidea ■ Solicitud 2018 Kirol eta gorputz jarduerak pertsona ezinduentzat Actividades físico deportivas para personas discapacitadas
--	--

Euskara, Kultura
eta Kirol SailaDepartamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

ASUN	
-------------	--

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo		Identifikazio zk. ■ Nº identificativo				
<input checked="" type="checkbox"/> IKZ ■ CIF						
Sozietatearen izena ■ Razón social						
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)		Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerrria ■ Municipio		Herria ■ Localidad	P. K. ■ C. P.	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico						
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax				

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)		Zk. ■ Núm.	Letra	Eskra. ■ Escal.	Solairua ■ Piso	Aldea ■ Mano
Herrialdea ■ País	Probintzia ■ Provincia	Udalerrria ■ Municipio		Herria ■ Localidad	P. K. ■ C. P.	


LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo			Identifikazio zk. ■ Nº identificativo		Sexua ■ Sexo	
<input type="checkbox"/> NAN DNI	<input type="checkbox"/> AIZ NIE	<input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			<input type="checkbox"/> Emakumea Mujer	<input type="checkbox"/> Gizona Hombre
Izena ■ Nombre			Lehen abizena ■ Primer apellido		Bigarren abizena ■ Segundo apellido	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico						
Telefonoa ■ Teléfono	Mugikorra ■ Móvil	Faxa ■ Fax				

EE: 10/04

Orria ■ Hoja 1/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	Eskabidea ■ Solicitud 2018 Kirol eta gorputz jarduerak pertsona ezinduentzat Actividades físico deportivas para personas discapacitadas
--	--

Euskara, Kultura
eta Kirol SailaDepartamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA ■
DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD

Behean zehaztutako pertsonak, zeinak bertan sinatzen baitu, zinpean adierazten du azaltzen den entitateak baimenduta dagoela haren izenean aurkezteko erantsitako eskaera.

La persona abajo especificada, que firma la presente, declara bajo juramento que está autorizada por la Entidad que se señala para presentar en nombre de la misma la solicitud adjunta.

Izen-abizenak ■ Nombre y apellidos	
NAN ■ DNI	
Entitatea ■ Entidad	
IFK ■ CIF	
Kargua klubean ■ Cargo en el Club	


.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma _____

(Klubaren zigilua ■ Sello del Club)

Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia. (AURREKO ALDEAN) Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud. (ANVERSO)	Eskaera sinatzen duenaren NANaren fotokopia. (ATZEKO ALDEAN) Fotocopia del DNI de la persona firmante de la solicitud. (REVERSO)
--	---

Orria ■ Hoja 2/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	Eskabidea ■ Solicitud 2018 Kirol eta gorputz jarduerak pertsona ezinduentzat Actividades físico deportivas para personas discapacitadas
--	--

Euskara, Kultura
eta Kirol SailaDepartamento de Euskera,
Cultura y Deporte

I. ERANSKINA ■ ANEXO I


BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS ⁽³⁾

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete soilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
Finantza entitatearen adostasuna (sinadura eta zigilua) ■ Conforme entidad financiera (firma y sello)	Hirugarren interesdunaren sinadura edota entitatearen zigilua ■ Firma de la persona interesada y/o sello de la entidad interesada
.....(e)ko.....aren.....(e)an En....., a..... de..... de.....(e)ko.....aren.....(e)an En....., a..... de..... de.....
Finantza erakundeak ZIURTATZEN du lehen adierazitako banku kontua "ESKATZAILEA" atalean ageri den pertsona fisiko edo juridiko interesdunaren izenean eta IFZarekin dagoela irekita, eta pertsona interesdun hori kontuaren titular gisa ageri dela	ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT: <input type="checkbox"/> Alta eskatzen da Arabako Foru Aldundiaren hirugarren moduan, ESKAERA HONI IFZ-REN FOTOKOPIA ERANTSITA <input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, dagoeneko altan egonik Arabako Foru aldundiaren hirugarren moduan
La entidad financiera CERTIFICA que la cuenta bancaria anteriormente señalada figura abierta al NIF y nombre de la persona física o jurídica interesada que figura en el apartado "SOLICITANTE", y que dicha persona interesada figura como titular de la cuenta.	INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES: <input type="checkbox"/> Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava, para lo cual SE ADJUNTA FOTOCOPIA DEL NIF A LA PRESENTE SOLICITUD <input type="checkbox"/> Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.

Orria ■ Hoja 3/6

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	2018
	Eskabidea ■ Solicitud Kirol eta gorputz jarduerak pertsona ezinduentzat Actividades físico deportivas para personas discapacitadas

